

Emakumeen
Giza Eskubidea
indarkeriarik
gabeko
bizitzarako

Si!

Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional

EUSKADIKO ETA GUATEMALAKO
ERAKUNDEEN ARTEAN, GENERO-
INDARKERIAREN AURKAKO BORROKA
BULTZATZEKO BERDINTASUNAREN
ETA HERRITARREN PARTAIDETZAREN
INGURUKO POLITIKA PUBLIKOEN ARLOKO
ESPERIENTZIAK TRUKATZEKO ETA
TALDEAN IKASTEKO ESPARRUEI BURUZKO
SISTEMATIZAZIO-DOKUMENTUA



Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna erakundeak sustatuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin

Aurkibidea

SARRERA 4

ESTRATEGIAK ETA METODOLOGIA..... 7

GARATUTAKO JARDUERAK..... 9

Guatemalan garatutako jarduerak 10

Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako jarduerak 16

Beste jarduera batzuk 21

TESTUINGURUAREN AZTERKETA. POLITIKA PUBLIKOAK: EDUKIAK ETA PROZESUAK 23

Politika publikoak: edukia..... 24

Politika publikoak: toki mailan ezartzea 26

Emakumeen kontrako indarkeria: erakundeen arteko eta dimentsio anitzeko esku-hartzea eskatzen duen arazoa 29

EZTABAIDA: HAIN DESBERDINAK EZ DIREN ERREALITATEEN ARTEKO TOPAKETA..... 31

ONDORIOAK: BIZITZEA MEREZI DUEN BIZITZA BAT 36

ERRONKAK: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO LURRALDEA..... 41



Sarrera

Sistematizazio-dokumentu honek labur-labur azaltzen ditu gizarte-eraldaketarako hezkuntza jardueretako parte-hartzaileen esperientziak, ideiak, proposamenak eta iradokizunak. Jarduera horiek **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak** finantzatu duen programa:

• **“GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITZEN DEN GARAPEN INTEGRALEKO UDAL EREDUA”** (espediente-zk.: PGM-2011 BA/0010) eta Arabako Foru Aldundiak finantzatutako **“ARABAKO GIZARTEA BILAKATUZ, EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE EGIN DEZAN; GUATEMALAKO SOLOLÁ DEPARTAMENTUKO SAN LUCAS DE TOLIMÁNGO EMAKUMEEK ETA ARABAKO EMAKUMEEK INDARKERARIK GABEKO BIZITZA IZAN DEZATEN”** egitasmoaren barruan burutu dira.

Esku-hartze biak Guatemalan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egin ziren, hiru toki-elkarteren bitartez (**Colectivo Poder y Desarrollo Local** - CPDL, **Asociación de Mujeres Luqueñas para el Desarrollo Integral** - AMLUDI eta **Asociación Servicios de Capacitación Técnica y Educativa-SERCATE**) **Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasuna** erakundearen laguntzarekin.

Elkartzeko eta esperientziak trukatzeko guneak sortzea izan da jarduera horien xedea, testuinguru geografiko bietako (Sololá departamenduan eta Euskal Autonomia Erkidegoan) **emakumeen eta emakume-elkarteen arteko elkarrietzak eta sinergiak** bultzatzeko, **berdintasunari eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko politika publikoen inguruan**. Hori guztia, gizarte zibileko erakundeen gaitasunak –batez ere lurralde bietako emakumeen elkarteenak– hobetzeko, eta horrela, **giza eskubideen galdagarritasuna sendotzeko, genero ekitaterako eskubideari eta parte hartzeko eskubideari arreta berezia eskainiz**.

Esperientzien trukaketa horren lehenengo parteak:
harremanetan jartzeko
2016ko azaroan garatu zen, Guatemalan

Esperientzien trukaketa horren lehenengo parteak, gaiarekin lehenengo aldiz harremanetan jartzeko, 2016ko azaroan garatu zen, **Guatemalako Panajachel-en** (Sololá). Bertan, eskualdeko **eztabaida foro** bat antolatu zen, programa ezartzen ari den tokian (Sololá departamenduan) zein Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen ari diren **Politika Publikoak generoaren ikuspegitik eztabaidatzeko**. Horretarako, hiru euskal lurraldeetako ordezkariak parte hartu zuten eztabaidan: Marije Apodakak, Maider Domínguezek eta Cony Carranzak, hirurak esperientzia zabalekoak elkarteen eta erakundearen arloan. Euren ardura euskal erakundeek eta udalerriek berdintasunaren eta genero ekitatearen arloan egiten duten lana ezagutaraztea zen. Guatemalari dagokionez, honako hauek hartu dute parte: Emakumearen Presidentetzako Idazkaritzako (SEPREM) eta Garapenerako Departamenduko Kontseiluko

(CODEDE) ordezkariak; Departamenduko Gobernuak, Organismo Judizial eta Be-tearazleko eta Hezkuntza eta Osasun Ministerioko ordezkariak.

Eztabaida foroaz gain, San Andrés Semetabaj eta San Lucas Tolimánen, biak Sololá departamenduko udalerrian, **hiru tailer** antolatu ziren, **emakume liderren udalerriko sareak** CPDLren laguntzarekin egiten duen lana eta herriko zein udalerriko garapen kontseiluetan (COCODE eta COMUDE) parte hartzea ezagutarazteko; **esperientziak udalerriko indarkeria matxistaren kasuetan ematen den arreta-ren arloan diharduten funtzionario publikoekin trukatu ziren**, AMLUDI eure-kin lan egiten ari baita sentsibilizatzeko eta prestakuntza zein informazioa emateko. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru ordezkariak, berriz, erkidegoko emakumeekin hainbat arlotan egiten duten lanaren berri eman zuten.

Bigarren partea:
2016ko abenduan, Euskal Herrian

Topaketa eta trukaketa horren bigarren partea, aldiz, Euskal Herrian izan zen, 2016ko abenduan. Horretan parte hartu zuten: Vitalina Díaz Cuj AMLUDiko ordezkariak, Hugo Rolando Reyes Nájera CPDLren zuzendariak eta Alba Isabel Robles Tzep SERCATEko kideak, hau da, programan parte hartzen duten Guatemalako erakun-deen ordezkariak, Sololá departamenduan emakumeen eskubideak defendatzeko lan egiten dutenak.

Egindako bisitan, hainbat jarduera burutu ziren, **genero berdintasunaren arloan eta indarkeria matxistaren kontrako borrokaren arloan euskal elkarteak eta erakundeak egiten duten lana lehen eskutik ezagutzeko**. Bizkaian, berdintasunaren arloan sustatzen ari den lana ezagutu zuten. Gipuzkoan, **Donostiako Emakumeen Etxea** bisitatu zuten, baita **udaleko Kultur Aniztasunaren Atala** ere. Eta **Araban, Gasteizko erakunde feministen eta emakume-elkarteen to-paketan parte hartu zuten**, non azken 40 urteetako borrokak ezagutzeko aukera izan baitzuten.

Sistematizazio-dokumentu honetan, helburu nagusia Guatemalako eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarte eta erakundeetako kideak diren emakume guztien artean indarkeria matxistari eta berdintasunaren arloko politika publikoei buruzko eztabaida piztea izanik, **esperientziak trukatzeko** eta taldean ikasteko aukera ezin hobe bihurtu ziren topaketa horietan guztietan jasotako **gogoetak, emaitzak eta irizpenak xehetasunez azaltzen eta partekatzen saiatuko gara**.



Estrategiak eta
metodologia

Egitasmoaren abiapuntua **Solidaridad Internacional-Nazioarteko Elkartasunaren** lan finkatuko ildo estrategiko bat izan da, Garapenerako Hezkuntzaren Plan Estrategikoan eta **Genero Ekitatearen aldeko Planean** jasotakoa. Plan horietan, aspaldi garatzen ari diren hainbat ekintza –**Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunaren** esparrukoak– bildu dira.

Esparru horretan, **Emakumeen kontrako diskriminazio mota guztien eliminaziorako batzordeak** (CEDAW) zehaztutako printzipio, norabide eta helburuak aintzat hartuta, **Euskadiko eta Guatemalako emakumeek** euren bizitzan zehar jasan behar izan dituzten **giza eskubideen urraketa** asko eta askotarikoak identifikatzea, horiei ekitea eta zabaltzea izan da burututako jardueren xedea.

Esperientziak trukatzeko, praktikan jarri ziren **talde dinamikak eta eztabaida taldeak**. Bertan, parte hartzea bultzatzeko, **hainbat galdera bota ziren emakumeek bizitza duina izateko eskubidearen inguruan, gorputza, familia eta komunitatea dimentsio nagusitzat hartuta**. Eztabaida horien eta ondorengo bateratze lanaren bitartez, **testuinguru geografiko bietako emakumeek esperientziak trukatzeko** eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan hartzen eta erabiltzen dituzten estrategiak eta aurre egiteko teknikak partekatzea lortu nahi zen.

Halaber, **Guatemalan eta Euskal Autonomia** Erkidegoan diharduten eta gizarte arazo horiei loturik dauden hainbat **elkarte eta erakunderen arteko trukaketa guneak** sortzea sustatu zen, honako helburu hauek lortzeko: indarkeriaren kontrako borrokarekin zerikusia duten ekintzak bultzatzeko aukera eta ekimen desberdinak ezagutzea; **erakundeen eta emakume-elkarteen zein elkarte feministen artean sinergiak eta sareak eratzea**; udalerriko plan eta politikak generoaren ikuspegia aintzat hartuz eratu eta ezartzeko proposamenak sortzea.

Gainera, **hainbat erakundek, feministek eta giza eskubideen aldeko aktibistek parte hartzeari esker**, posible izan da esku hartzeko estrategiak eta dinamikak aztertzea eta proposatzea, **Emakumeen Giza Eskubideak bizitzako arloetan** aplikatzeko orduan sortzen diren arazoei heltzeko; halaber, parte-hartzaileen aniztasunak berak (jatorri etnikoa, erlijioa eta abar) erraztu du **ikuspegi desberdinak lortzea**.



Garatutako
jarduerak

Jarraian azalduko ditugu elkartzeko eta esperientziak trukatzeko jardue-
ra desberdinak, bai Guatemalan bai
Euskal Autonomia Erkidegoan gara-
tu direnak.

GUATEMALAN GARATUTAKO JARDUERAK

Guatemalan garatutako jarduera na-
gusiak honako hauek izan dira: alde
batetik, genero ikuspegia duten po-
litika publikoei buruzko **eztabaida
foro bat**, eta bestaldetik, genero-in-
darkeriari buruzko **hiru tailer**.

**Eztabaida foroa: “Genero
ikuspegia duten politika
publikoak Sololán (Guatemala)
eta Euskal Autonomia
Erkidegoan”**

Eztabaida foroa 2016ko azaroaren
28an izan zen, Panajachel udalerrian;
Sololáko emakumearen udal zuzen-
daritzetako ordezkariak eta San An-
drés Semetabaj eta San Lucas To-
limángo emakumeen elkarteetako
ordezkariak (80 baino gehiago) hartu
zuten parte.

Guatemalako hizlariak dagokienez,
departamenduko gobernadorea
bertaratu zen, baita Presidentetzako
Idazkaritzako ordezkaria (**SEPREM**),



Ministerio Publikoko fiskal lagunt-
zailea eta **CODEDEn** emakumeen
elkarteak ordezkatzeko dituen de-
legatua ere. **Guztiek euren ikus-
puntua eman zuten honako gai
hauen inguruan:** politika publikoak
generoaren ikuspegitik garatzea;
esku hartzeko arlo desberdinetan
indarkeria matxistaren kontrako bo-
rroka; politika horiek aplikatzeko or-
duan agertzen diren **barne- zein
kanpo-oztopo ezberdinak**.

Euskal Herriaren mailan parte har-
tu zuten: **Marije Apodaka Elorrio
Bizkaiko udalerriko berdintasun
teknikariak**, udal planak eta poli-
tikak generoaren ikuspuntua aint-
zat hartuz eratzeko eta ezartzeko
egin behar zuen bide luzea azaldu
zuenak; **Maider Domínguez fe-
ministak**, berdintasun, ahalduz eta
indarkeria matxistaren aurkako
borrokaren gaitan eskarmentu za-
bala eta hainbat gaitasun dituenak,
emakumeen elkarte batzuek erakun-
de publikoetan izaten duten eragin
politikoaren inguruko azalpen batzuk
eman zituenak; eta **Cony Carranza
genero eta kulturartekotasuna-
ren gaitan esperientzia handiko
prestatzaile**, hainbat euskal uda-
lerritan tailerren antolatzaile, autola-
guntzarako taldeen dinamizatzaile
eta emakume etorkinen topaguneak
bultzatzen dituenak, emakume etor-
kinen elkarteek Euskal Autonomia
Erkidegoan egiten duten lanaren in-
guruko ikuspuntu propioa aurkeztu
zuenak.



Delegazio biek emakumeen aldeko politika publikoak euren herrietan ezartzearen inguruko **gogoetak** aurkeztu zituzten. Aurkezpenak ulertarazi zuen gaiaren **konplexutasuna, parte-hartzaileen ikuspuntu subjektibotik**, euren esperientziaren eta jarduteko eremuaren arabera. Ekarpen sakona izan zen eta horretarako, emakumeen **ikuspegi singularrak** eta banakako zein taldeko mailan errepikaezinak bildu ziren, **prozesu horiek modu bateratuan ulertzeko aukera emanez**, prozesuok abian jarri eta bideratu izanaren garrantzia alde batera utzi gabe. Aurkezpena amaitutakoan, esperientziak eta iritziak trukatzeko une aberasgarria heldu zen, gaiaren inguruan piztutako interesaren seinale; halaber, argi ikusi zen jarduerak aukera ona sortu zuela eztabaida bultzatzeko, taldearen iritzia emateko eta parte-hartzaileen interpretazioak adierazteko.

Genero-indarkeriari buruzko tailerrak

Tailer bi egin ziren San Lucas Tolimán eta San Andrés Semetabajeko lider eta sustatzaile legalekin (komunitateko liderrekin), **Guatemalan eta Euskal Herrian genero-indarkeriaren arloan egiten ari den lanaren antzekotasunak eza-gutzeko** eta familiaren barruko indarkeriari zein genero-indarkeriari aurre egiteko ildo estrategikoak bilatzeko xedez.



Lehenengo tailerra

Lehenengo tailerra San Andrés Semetabajen 2016ko azaroaren 29an antolatatu zen, CPDLko instalazioetan; **San Andrés Semetabajeko Emakumeen Sareko kideek** eta Garapenerako Departamenduko Kontseiluetan (CODEDE) parte hartzeko esperientzia duten liderrek hartu zuten parte. Tailerra garatzeko, honako galdera hauek planteatu ziren:

- Emakumeok zer behar dugu bizitza duina eta gure gorputzaren mailan librea izateko? Emakumea izanda, zer behar du **nire gorputzak** ondo egoteko?
- Etxean, bikotekidearekin, seme-alabekin, zer behar dut nik **nire etxean** bizitza duina eta librea izateko?
- **Gure komunitatean**, zer behar dugu emakumeok helburu hori betetzeko?

Egin ziren **talde dinamiketan**, parte-hartzaileek, galdera horiek taldeka eztabaidatu ondoren, eztabaidaren emaitzak azaldu zituzten, taldeko hausnarketa irekitzeko. Teknika horren bitartez, agerian utzi da herrialde batetik bestera ez dagoela alde handirik emakumeen arazo, egoera eta bizi-baldintzei dagokienez; izan ere, hainbat antzekotasun ikus daitezke, eta elkarren artean egiaztatu denez, desberdintasuna are txikiagoa da emakume etorkinen kasuan.



Bigarren tailerra

Zuzendaritza-batzordeak eta AMLUDiko liderrek azaroaren 30ean San Lucas Tolimánen antolatutako bigarren tailerrean, dinamika bera erabili zen. Horrela, **emakume-elkarte horren kideek aukera izan zuten egiten duten lana eta euren elkartearen ezaugarriak beste erakunde batzuetako kide diren emakumeekin partekatzeko.**

Adorea emateko moduko topaketa izan zen, oso interesgarria; bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariak jakin eta egiaztatu ahal izan zuten herri horretako emakumeek, euren bidean hainbat **muga, ahulgune eta zailtasun topatu arren**, lortzen ari zirela **erresistentzia estrategiak sortzea justizia bilatzeko bidean.**

Lehenengo tailer horietan parte hartu zuten: guztira 69 emakume (27 San Lucas Tolimánen eta 42 San Andrés Semetabajen) eta 11 gizon (3 San Lucas Tolimánen eta 8 San Andrés Semetabajen).



Hirugarren tailer

Bukatzeko, azaroaren 30ean, hirugarren tailer bat egin zen San Lucas Tolimánen; bertan, 13 emakume eta 13 gizonek hartu zuten parte, gehienak herrian dauden **Hezkuntza eta Osasun Ministerioko langile publikoak**. Azken tailer horren helburua giza eskubideak Guatemalan eta Euskal Autonomia Erkidegoan defendatzeari buruzko esperientziak trukatzeta eta ahaleginak bateratzeta zen, familiaren barruko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko **estrategia berriak bilatze aldera**. Laburbilduz, tailer horrek honako helburu hauek izan zituen:

- parte-hartzaileen artean **partekatzeko moduko esperientzia aberasgarri** bat bultzatzea, emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzearen inguruan;
- Euskal Herriko emakumeen mugimenduen esperientzietan erabilitako **tresnak eta gaiak** biltzea;
- parte-hartzaileen artean **konfiantza-giroa** sortzea.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GARATUTAKO JARDUERAK

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, **elkartzeko eta esperientziak trukatzeko jardunaldia** izan zen burututako jarduera nagusia; ekimena osatzeko, hainbat bisita eta bilera egin ziren berdintasun eta aniztasunaren arloetan lan egiten duten elkarteetako kideekin eta udaleko langileekin.

Bizkaia: Elkartzeko eta genero-berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren arloetako esperientziak trukatzeko jardunaldia Elorriko udalerrian

2016ko abenduaren 14an izandako jardunaldiaren bitartez, emakume guatemalarrak eta euskal emakumeek esperientziak trukatzeko bultzatu nahi zen. Horretarako, Bizkaian dagoen **Elorrion eta inguruetan, generoaren arloan eta indarkeria matxistaren kontrako borrokaren arloan berdintasun saileko langileak egiten ari diren lanaren berri eman zitzaion Guatemalako ordezkariari**. Bestalde, emakume guatemalarrak azaldu zuten euren herrialdean egiten duten lana, genero-indarkeriaren delituen zigorgabetasunari dagokionez.

Marije Apodaka Elorriko berdintasun teknikariak dinamizatu zuen jardunaldia. Aurretik azaldu dugunez, trukaketaren lehen fasean, Marije Apodaka Sololá departamenduan bisitan egon zen, udal planak eta politikak generoaren ikuspegitik eratu eta ezartzeko orduan izan zituen esperientzien berri emateko.



Jardunaldiaren lehenengo partean, **Guatemalako ordezkariak Durangaldeko Indarkeriaren Protokoloan** parte hartzen duten agentee-kin trukatu zituzten esperientziak.

Berlaratu ziren agenteek egiten ari den lan koordinatua, horren egoera eta burutzen ari diren jarduketak azaldu zituzten. Ordezkariek guatemalarrak, berriz, informazio laburra eman zuten herrialdearen eta departamenduaren inguruan, horien testuingurua eta ezau-
garriak ulertarazteko, aurrekariaren xehe-
tasunak emateko eta “promotora legal”
edo komunitate mailako liderra (gene-
ro-indarkeria salatze prozesuan era-
biltzen duten titulua) zer den azaltzeko.

Ondoren, Txintxirrin Ikastolako eta Elo-
rriko Institutu Publikoko irakasleek
azaldu zieten Guatemalako ordezkariari
**hezkidetzaren arloan eta indarke-
ria matxistari aurrea hartzeko** due-
la hainbat urtez geroztik egiten ari den
lana, lehen mailako hezkuntzan zein
bigarren mailakoan.

Jardunaldiaren bigarren zatian, **to-
paketa bat egin zen emakumeen
elkarteekin, feministen mugimen-
duarekin eta tokiko GKEekin, Gua-
temalan garatzen ari den lanaren
berri emateko**.

Tokiko erakundeek (hala nola **Elorri
Lore, Lilika, Alargunen Elkartea,
Bilgune Feminista eta Kainabera**)
eskualdean izan zituzten hainbat espe-



rientzia azaldu eta partekatu zituzten. Era berean, modu bateratuan **aztertu ziren generoen arteko desberdintasunak eta giza eskubideak** Guatemalako eta Bizkaiko testu- inguruetan, egoeretan eta berdintasuna- ren inguruko politketan, batez ere, emakumeak ahalduentzeko eta euren eskubideak garatzeko bidean aurrera egitea oztopatzen duten alderdiei da- gokienez.

Guatemalako eta Euskal Herriko erakundeak eta emakume aktibistak bildu zituen jardunaldia **elkar abe- rasteko eta pertsonen, elkarte- eta erakunde- arteko harrema- nak sendotzeko** aukera bihurtu zen. Horrez gain, Guatemalan eta Euskal Herrian **genero-berdintasunari eta indarkeria matxistaren aurkako borrokari buruz bildutako informa- zioa, azterlanak eta diagnostikoak zabaltzeko** gunea ere izan zen.

Gipuzkoa: Berdintasun eta aniztasunaren arloetan, Donostiako elkarte- eta udalaren mailako lan-esperientziak ezagutzeko bisita

Bigarren jardura gisa, abenduaren 15ean, Guatemalako ordezkariak **Donostiara joan ziren, udalak eta emakumeen elkarteek berdinta- sunaren eta aniztasunaren arloe- tan egiten duten lana ezagutzera.**

Lehenik eta behin, bilera bat egin zen **Kultur Aniztasunaren Bulegoan**; bertan, Carolina Adarraga teknikariak jakitera eman zuen udalean anizta- sunaren arloan garatzen ari den lana eta horren emaitzak udaleko berdinta- sun politketan aplikatzeko modua. Oso bilera interesgarria izan zen, kultur



aniztasuna erakundeetan tratatzeko moduaren inguruko ideiak trukatzeko balio izan zuelako. Sololáko udalerrietan, Guatemalako erakundeak presente daudenetan, prak- tika hori eztabaidagai bihurtu da eta, batez ere, esku sartzeko kontua, erakunde horiek euren lanean topatzen dituzten emakumeen jatorria (indigenak) dela eta.

Bigarrenik, **Donostiako Emakumeen Etxeko** arduradunekin bilera egin zen, **Donos- tiako mugimendu feministaren aspaldiko aldarrikapena izan zen proiektu hori ezagutzeko**. Bereziki interesgarria izan zen **Etxeari buruzko eta funtzionatzeko eta hainbat kideren artean kudeatzeko eredu berritzaileari buruzko azalpe- na; izan ere, udalerriko erakunde feministak eta emakumeen elkarteak uda- leko Berdintasun Ataleko arduradunekin batera arduratzen dira zentroaren kudeaketaz**. Eredu hori Sololán ezartzea, hau da, udalak espazioak jartzea eta gu- nea dinamizatzeko lana finantzatzea, erakundeek emakumeak (banaka zein taldeka) ahalduentzeko prozesuetan aurrera egitera bideratutako jarduerak gara ditzaten, Gua- temalako hiru erakundeek esku hartzen duten udalerrietan bultzatzen ari diren borroka nagusietako bat da.

Araba: Topaketa Gasteizko erakunde feministekin eta emakumeekin

Araban programatutako jarduerari dagokionez, abenduaren 16an, **Arabako asanbla- dako emakumeekin** topaketa bat antolatu zen **Gasteizen**, Guatemalan egindakoa be- zalako tailer bat egiteko asmoz, kasu honetan, **euskal feminismoaren ikuspegia aintzat hartuz**. Horretarako, interesgarritzat jo zen azterketarako tresna gisa **“40 URTEZ GAS- TEIZ FEMINISTA ERAIKITZEN, ARABAKO EMAKUMEEN ASANBLADAREN EKARPENA”** erakusketari bisita erabiltzea; horren bitartez, omenaldia egin zitzairen 70eko hamarkadan tokian tokiko borroka feminista hasi zuten emakumeei.



Topaketan, errepasoa eman zitzaion **Espainiako mugimendu feministaren historia**ri, 1931ko Errepublikako Konstituziotik aurrera: diktadura frankistaren garaiko galdialdia; 50eko hamarkada, lehenengo emakume-elkarteak sortzeko garaia; 60ko hamarraldia, non emakume antifrankistak alderdi klandestinoetan antolatzen hasi baitziren; eta 70eko hamarkada, autokontzientzia taldeak deritzenak sortzen hasi zirenean.

Euskal Herriko mugimendu feministari dagokionez, topaketa-tailerrean 1975-1977 bitarteko aroa nabarmendu zen bereziki; garai hartan, eskualde mailan sortu ziren emakumeen asanbladak eta erakundeak, eta 1977an, Euskadiko lehen Jardu-naldiak antolatu ziren, honako gai hauen inguruan: konstituzio-proiektua, abortua eta dibortzioa. Bukatzeko, gaur egun, **berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko legeez –estatukoaz eta Euskal Herrikoaz– hitz egin zen, baita Emakunde erakundeaz eta berdintasunaren arloko tokiko zerbitzuez ere**, Arabako ahal-duntze eskolak nabarmenduz.

Halaber, beste gune emankor bat sortu zen –lanerako zein eztabaidarako– **Gasteizko Udaleko Herritartasunerako Eskola Irekia**; bertakoek hiru ordezkari guatemalarrak gonbidatu zituzten, abenduaren 17an. Esparru horretan, **udalerriko esperientzia batzuk ezagutarazi ziren**; horietan, Bartzelona, Irun, Getafe eta Gasteiz bera bezalako hiriek hartu zuten parte. Partekatu ziren, besteak beste, **Guatemalako udalerrietako emakumeek izaten dituzten zailtasunak**; denak batera aztertu ziren, egoera horrek giza eskubideak –eta batez ere, emakumeen eta nesken eskubideak– defendatzeko orduan nolako inpaktua izaten duen jakiteko.

BESTE JARDUERA
BATZUK

Aipatutako jarduerak, Guatemalan eta Euskal Herrian garatu zirenak, **komunikabideen bitartez hedatutako eta herritar orori zuzendutako sentsibilizazio ekintza** batekin osatu ziren:

Lehenik

Alde batetik, abenduaren 31n, bi erreportaje argitaratu zituen DEIAK (Berri Taldeak), honako izenburu honekin: **“CONTRA LA IMPUNIDAD EN LOS FEMINICIDIOS: Guatemala lucha por crear territorios libres de violencia contra las mujeres”**. Horietan, Euskal Herriko eta batez ere Arabako erakundeek laguntzarekin, egitasmoan parte hartu zuten Guatemalako elkarteek egindako lanaren berri eman zen. Artikuluan **Guatemalako emakumeek, batez ere, landa-ingurunean bizi diren emakume**



indigenek, jasaten dituzten indarkeria-egoeren testuingurua azaldu zen, baita AMLUDIko toki-liderrek egoera horien zigorgabetasunari aurre egiteko eta emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitzaren alde borrokatzeko garatzen duten lana ere.

Bigarren artikuluari dagokionez, **genero-sistemei, kulturari eta biztanle indigenek habitatzen dituzten landa-eremuen konplexutasunari heldu zitzaien. Azpimarratu zen emakume horiek jasan behar izaten duten arbuio soziala eta politikoak, eta, parte hartzeko orduan, gaitzespen horrek sortzen dituen zailtasunak ere.** Azkenik, egitura patriarkala ezaugarri duen testuinguruan, generoen arteko desberdintasunei, emakumeen kontrako indarkeriari eta zigorgabetasunari amaiera eman-go dien maskulinitatearen eredu berria sustatzeko lanaren garrantzia nabarmendu zen.

Bigarrenik

Bigarrenik, 2016ko abenduaren 15ean, **gaia 97 FM Irratiko Mar de Fueguitos programan agertu zen, Guatemalako Bake Akordioen hogeigarren urteurrena ospatzeko.** Irratsaio horretan, ordezkari guatemalarek azpimarratu zuten akordioak sinatu ondoren egindako aurrerapausoak, oro har, gutxi izan arren, **emakume indigenen kasuan, aldaketa batzuk egon zirela, batez ere, kolektiboa indartzeari eta parte hartzeari dagokionez.** Hala ere, gogorarazi zutenez, **Guatemalan ez da egunik pasatzen emakume bat behartu, bortxatu edo hil gabe** eta matxismoa sakon errotua dago gizartean.

Hirugarrenik

Eta hirugarrenik, gizarte-sareetan jartzeko **bideo** bat prestatu da, **“EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERARIK GABEKO LURRALDEAREN ALDE”** izenburukoa. Bideoak modu labur-labur eta grafikoan deskribatzen du **Sololá departamenduko emakumeek Guatemala bezalako herrialdean (feminizidio-tasarik altuena duen eremua) genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko egiten duten lan garrantzitsua.** Bideoak, batez ere, erakusten du **nola moldatu diren komunitate indigenetako emakumeak indarkeria matxistaren kasuak salatze**ko, **indarkeria-egoerak jasaten dituztenei laguntzeko eta gizartea, tokian tokiko erakundeak eta agintariak sentsibilizatzeko, bizi izaten duten egoera larriaren berri emanez.**



Testuinguruaren azterketa.

Politika publikoak: edukiak eta prozesuak

Sistematizazioan nabarmendu behar den lehen alderdia zera da: **trukaketak herrialdeko zein tokiko testuinguruaren analisi konparatiboa ekarri zuen, berdintasunaren inguruko politika publikoen edukiari eta ezartzeko prozesuari dagokienez.**

POLITIKA PUBLIKOAK: EDUKIA

Guatemalaren kasuan, 2008. urtetik, abian daude **Emakumeen Sustapenerako eta Garapen Integralerako Politika Nazionala (PNPDIM) eta Aukeren Berdintasunerako Plana 2008-2023 aldirako**, biak erabakiak hartzeko arlo desberdinetan aplika daitezkeen kudeaketa-tresnak izanik. **Emakume indigenek dagokien parte hartzeko eskubidea gauzatzeko eskaera egin ondoren eratu dira tresna horiek. Udalerrri mailako gobernuei eta, oro har, estatuko erakunde guztiei dagokie politika eta plana ezartzeko ardura.**

Emakumeen Sustapenerako eta Garapen Integralerako Politika Nazionaletik **beste politika** batzuk datoz, departamendu eta udalerrri mailan gauzatzekoak, eta emakume-elkarteen ordezkaritza arduratzen da politika horiei jarraipena emateaz. **Sololá** departamenduan, duela hainbat urtez geroztik, saialdi batzuk egin dira Politika Publikoak eratzeko. Udalerrri mailan, departamendua osatzen duten **19 udalerrietatik hirutan bakarrik lortu da emakumeen aldeko politika publikoak ezartzea**, beraiek egindako salaketak eta proposamenak aintzat hartuta: San Pedro La Lagunan, Santiago Atitlánen eta Sololán. Duela gutxi, San Pablo La Laguna, San Lucas Tolimán eta Santa María Visitación udalerrietan, hasi dira politika publikoak prestatzen. Prestakuntza prozesu desberdinetan parte hartu duten emakume antolatuen erdiespenetako bat da. Politika horiek, **kudeaketa-tresna** gisa erabiltzen direnak, **Komunitateko Garapen Kontseiluan (COCODE) parte hartzen duten emakumeekin eta gobernu-erakundeekin koordinaturik garatzen ari dira.**

Espainiako estatuan, 1986an, diktaduraren ostean, lortu zuen mugimendu feministak politikan sartzea, eta hortaz, politika publikoak formulatzea. Horien artean, **berdintasun planak** nabarmendu behar dira; izan ere, 80ko hamarkadatik, **esku-hartze publikorako tresna giltzarri** bihurtu ziren, batez ere, berdintasunaren arloan, erakundeen arteko **koordinazioari** eta **esku-hartze publikoaren planifikazio orokorrari** dagokienez.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, 1988an, «**Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea**» sortarazteari buruzko **2/1988 Legea onartzearekin batera**, hasi ziren garatzen emakumeentzako ekintza positiboko planak autonomia-erkidegoaren mailan; izan ere, berdintasunaren arloan, autonomia-erkidegoak du erabateko eskumena. Foru-aldundiko (probintzia edo bigarren mailako) eta tokian tokiko (udalerrri edo hirugarren mailako) eremuei dagokienez, **lurralde-antolamenduari buruzko legeek** berdintasun politiken arloko eskumen betearazlea **foru-aldundiei** (probintziako gobernuei), **eta emakumeak sustatzeko jarduera osagarriak antolatzeko eskumena udalerrriei esleitu zieten.**

2005era arte, hau da, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea onartu arte**, ez ziren argi zehaztu administrazio maila bakoitzaren antolamendua, eskumenak eta eginkizunak. **Autonomia-erkidegoko erakundeei legegintzako eskumena, arauak garatzeko eskumena eta zuzeneko ekintza esleitu zitzaizkien; foru-organoei eta tokian tokiko organoei, berriz, arauak beteazteko eskumena esleitu zitzaien.**

Laburbilduz, planen mailan

- **Legegintzaldi bakoitzaren hasieran Plan Orokor bat egiten da, Autonomia Erkidegorako berdintasun-politiken jarraibide orokorrak jasotzen dituen.** Seigarren plana (azkena) 2013ko abenduan onetsi zen. Autonomia-erkidegoaren mailako plan horri batzen zaizkio Emakundek egindako ekintza plana eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak egindako plan bereziak.
- Probintzia mailan eta tokiko mailan, **udalek eta foru-aldundiek plan edo programa propioak izan eta horiek betearazteko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza- zein diru-baliabideak jarri behar dituzte.**

Horri dagokionez, aipatu beharra dago trukaketa-jardueretan azpimarratu zela **arau-esparru hori ez dela politika publikoen abiapuntua; izan ere, politika publikoak duela hainbat hamarkada taldeetan antolatutako emakumeen eta feministen aldarrikapenak aintzat hartu direlako sortu baitira.** Ildo horretan, **nabarmentzekoa da iritzia elkarrekin etengabe presioa egin behar dutela, atzera egiteko arriskua beti hor dagoelako**, bai legeen mailan, bai lortu diren beste ekimen batzuen mailan; halaber, **borrokatzen jarraitu behar da legeen ezarpenerako beharrezkoak diren baliabideak bermatzeko.**

POLITIKA PUBLIKOAK: TOKI MAILAN EZARTZEA

Sololáko udalerrietako esperientzia

Sololáren kasuan, gizarte zibilaren presioa funtsezkoa izan da, bai erakundeek politika publikoak onartzeko, bai dagokion lan-gileak izendatzeko eta behar den aurrekontua bideratzeko. Halaber, garrantzitsua izan da aldi berean **emakume-elkarteetan prestatuntza-prozesuak bultzatzea**, emakumeek politika publikoak eza-gutzeko eta horien inguruko erabakiak hartzeko aukera izan dezaten.

“Politika publikoak emakumeei familia, komunitate, udalerri eta departamendu mailako erabakietan parte hartzeko aukera emateko aukera dira. Baina eraginkor bihurtu behar dute...”¹

Lan horren emaitzak emakumeen presentzian ikus daitezke, modu aktiboan parte hartzen baitute, eztabaida-mahaiaren gainean eskariak eta proposamenak jarriz.

Hori guztia emakumearen gaietarako **udal zuzendaritzen bitartez antolatatu da**; izan ere, horiek dira politika publikoen ezarpena tokiko mailan

¹ Sololá departamenduko gobernadorearen mintzaldia eztabaida foroan: “Generoaren ikuspegia duten politika publikoak Guatemalako Sololán eta Euskal Herrian”.



koordinatzearen arduradun, eskualdean aritzen diren estatuko beste erakunde batzuekin eta gizarte erakundeekin batera. Zuzendaritza horiez gain, garrantzitsua izan da **emakumeen presentzia tokiko gobernuetan indartzea, hain zuzen, herriko zein udalerriko garapen kontseiluetan (COMUDE eta COCODE).**

Oro har, tresna gisa **urteko plan operatiboak** erabiltzen dira; plan horiek estatu, eskualde eta tokiko mailako politikek sustatzen dituzte. 2008tik, hau da, departamenduko politika ezartzeko probak egiten hasi zen unetik, zenbait zailtasun agertu dira: batez ere, **plana betetzeko aurrekontuko esleipenik eza eta, politikak ezartzeko orduan, borondate politiko eskasa gobernu bat baino gehiagotan.**

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien esperientzia

Aurretik esan bezala, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako euskal Legeak behartzen ditu udalerriak tokiko berdintasun planak egitera eta sail berezien bitartez ezartzera**; barne-indartzea eta diru-baliabideak planifikatu eta bideratzea beharrezkoa izaten da horretarako. Trukaketa-jardueretan, Bizkaiko udalerriaren (Elorrio) kasua aztertu zen zehatz-mehatz. Herri horretan, udalak hiru plan eratu eta garatu ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan. Horietako azkenak 2014an amaitu behar izan zuen, baina 2016ra arte egon zen indarrean; honako 4 gai-ardatz hauen inguruan egituratuta zegoen:

- 1_Gobernantza;
- 2_Emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea;
- 3_Gizarte-antolaketa erantzulekidea;
- 4_Eta emakumeen aurkako indarkeria.

2016. urtean, laugarren plana garatzeko bidean agertu ziren oztopoen eta egingadako aurrerapausoen inguruko hausnarketarako eta ebaluaziorako prozesu bat burutu zen. Prozesuan zehar argi ikusi zen plana garatzeko maila ertainekoa izan zela, batez ere, honako arrazoi hauek direla eta:

- Baliabide tekniko eta ekonomikorik eza;
- Aldaketa politikoek udalean izan duten eragina;
- Onetsitako hainbat ekintza bultzatu ez izana;
- Berdintasun Arloaren egonkortasunik eza.

Faktore batzuk, berriz, lagungarriak izan dira Planaren zati bat garatzeko, hala nola:

- Berdintasun teknikari lanpostua finkatzea;
- Berdintasunaren aldeko ekintza batzuk, atal desberdinek burutu dituztenak;
- Kanpo agenteekin elkarlanean aritzea;
- Talde politikoen erakunde mailako konpromisoa.

Plan berria diseinatzeko asmoari begira, **ikerketan eta parte hartzean oinarritutako metodologia** erabiltzen duen parte hartzeko prozesuan, aurreko planean zehaztutako gidalerro estrategiko berberak norabidetzat hartzea erabaki da, honako modu hauetan:

- Berdintasunerako **gobernantzaren** mailan, **generoaren ikuspegia toki administrazioan ezartzea**, 4/2005 Legeak agintzen duena betez.

- **Emakumeak ahalduentzeko bultzadari dagokionez**, laguntzea eta gaitzea euren bizitzaz erabaki dezaten eta **boterea lor dezaten bizitza publikoko erabakiak hartzean eragina izateko** eta diskriminazio-egoe-ra horiek aldatzeko.

- Hezkuntzan, ekonomian, zaintzan, kulturen, bizi diren ingurunean ekintzak proposatu eta gauzatzea, **berdintasunaren alde** dagoen eta **gizarte-eredu patriarkala gainditu nahi** izango duen gizarte bat osatzeko.

- Eta azkenik, **indarkeriaren kontrako borrokaren** inguruko gaiari dagokionez, **indarkeria matxistatik gabeko herria eraikitzea**, sentsibilizazio, prebentzio eta arretaren bitartez.

Azken gai-ardatz horri dagokionez, azpimarratu behar da **DURANGALDEKO** (Elo-rrio mankomunitate horretan baitago) **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA-RIAREN KASUETAN ERAKUNDEEK KOORDINATURIK JARDUTEKO II. PROTOKOLOA** garatzea, edozein motatako indarkeriarik gabeko herriak eraikitze-ko, non emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna errealitatea izango baita.

Protokolo horren bidez, behar bezalako jarduketarik gabeko arloak identifikatu nahi da, batez ere, emakumeek eta neskek familian jasaten duten indarkeria (bikotekideak edo bikotekide ohiak burutzen dituen tratatu txarrak barne) ez diren egoerak; halaber, **gaur egun erantzun profesional integratua –indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzen duena– eta erakundeen arteko komunikaziorako bideak emateko lan egiten duten zerbitzuak antolatze-ko eta koordinatzeko balio du protokoloak.**



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA: ERAKUNDEEN ARTEKO ETA DIMENTSIO ANITZEKO ESKU-HARTZEA ESKATZEN DUEN ARAZOA

Bai Sololán, bai Euskal Herrian, **estrategia guztiak emakumeen kontrako indarkeria-ri aurrea egitera eta errotik kentzera bideratuta daude**. Eskualde bietan, erakundeek zein emakume eta feministen elkarrekin ekintzak sustatzen dituzte **ikuspegi desberdine-tatik**, arazoari kontra egiteko.

Ardatz nagusia justizia eskatzeko nahia da, horregatik da garrantzitsua gobernu-erakundeen parte-hartzea. **Guatemalaren** kasuan, Ministerio Publikoaren lana aurkeztzen diren salaketa guztiak bideratzean datza.

“Eskatzeko, salatze-ko eskubidea, ministeriora jotzeko eta entzuna izateko eskubidea. Emakume askok jotzen dute guregana, eta askotan, ez dira emakumeen kontrako indarkeriaren kasuak; mantenuarekin, ondarearekin zerikusia duten kontuak direla eta etortzen dira. Baina arreta ematen ez badiegu, ez dugu zerbitzu ona ematen. Ministerio Publikoan delituak ikertzen ditugu, baina erakunde laguntzaile batzuk ere badaude”.²

Trukaketan, Ministerio Publikoaren ordezkariak nabarmendu dute **agente guztiak koordinaturik aritzearen garrantzia**, herrialdeko hizkuntza desberdinak aintzat hartuko dituen arreta integratua lortzeko.

“Erakundeetako langile askok ez dakizkitez tokian tokiko hizkuntzak eta erabiltzaileek gaztelaniaz komunikatzea lortu nahi izaten dute. Jendeak erakundeetara jotzen du eta bakoitzak bere hizkuntzan hitz egiten du eta zuk bere hizkuntza ulertzen ez baduzu, arazoa ez da berea”.³

Illo horretan, Guatemalako **arreta ereduak Bideraketa Sareen eraketa hartu du oinarri**; izan ere, sare horiek erakundeak antolatze-ko eta koordinatzeko espazioak dira. Sareen eginkizun nagusiak honako hauek dira:

1. Kontrola eta jarraipena. Biktimei laguntzea, kasuen jarraipena egitea, egin behar dituzten urratsei buruzko informazioa ematea. Lan hori garrantzitsua da eta biktimaren hizkuntza dakien langile batek arduratu behar du kasuaz, komunikazio zuzena eta arreta integratua bermatzeko.

2. Prestakuntza. Liderrak, irakasleak eta erakundeetako langileak (emakumeak zein gizonak) gaitzea, komunitateetan aldaketen bultzatzaile izan daitezen.

² Edwin Chávez - MP

³ Berdin

3. Informazioa ematea eta zabaltzea. Eskolako zein unibertsitateko ikasleei, emakumeen taldeei eta abarrei hitzaldiak ematea, ahaleginak bateratzea lortzeko, gizarte zibilaren parte-hartzea funtsezkoa dirudi eta.

Guatemalako jurisdikzio-eremuari dagokionez, gaur egun, udalerri bakoitzak bere bake-epaitegia du eta badaude epaitegi mugikorrak, sektore zehatz batzuetan kokatzen direnak. Epaileek egunean 24 orduz ematen dute **arreta eta ahalmenak eman zaizkie biktimen segurtasuna bermatzeko neurriak jar ditzaten**. Horri dagokionez, azpimarratu beharra dago legearen arabera **ez dagoela erasotzailerekin adiskidetzetik, ezta atzera egiterik ere**; hortaz, biktimak salaketa jartzen badu, jarraitu behar du.

Aldi berean, ministerio desberdinek ekarpenak egiten dituzte herritarrek indarkeriarik gabeko bizitzaren inguruan sentsibilizatzeko.

“Hezkuntza Ministerioan (MINEDUC) bake-kulturaz asko hitz egiten da, horixe baita ikastetxeetan bultzatu behar den eredua. Badago bizikidetzaraudi bat, baina zalantzarik gabe guk ezagutzen dugu ikasgeletan egoten den dinamika. Hezkuntzaren legean bertan aipatzen da ikasle guztien berdintasuna eta ekitatea. Gai horiei heldu behar diegu, baina lan horren konplexutasuna dela eta, zaila izaten da gai zehatzak jorratzea”.⁴

Euskal Autonomia Erkidegoan ere, eragozpenak topatzen dira **indarkeriari aurre egiteko politikak abian jartzeko bidean; askotan ere, indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak berriz biktimizatzen dira**. Justiziatik harago, hainbat erakundek ekintzak burutzen dituzte indarkeria erotik kentzeko. **Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak** nabarmendu behar ditugu: presio publikoa egiten dute, proposamenak aurkeztu eta indarkeriaren arazoa ikusarazi, erabakiak hartzen dutenen aurrean. Gainera, berdintasun-zerbitzuekin elkarlanean aritzen dira eta diru-laguntzak eskatzen dituzte, ikastetxeetan esku hartzeko; besteak beste, indarkeria matxistari buruzko tailerrak egiten dituzte, generoen artean berdintasunik ezaren egitura eta historia ulertzen laguntzeko. **Elorrioko Udalari dagokionez, badago emakumeei arreta emateko laguntza psikologikoko zerbitzua (doan), salaketa jarri gabe erabil daitekeena.**

Bukatzeko, nabarmendu zen **Gasteiz** bezalako hirietan, non etorkinen kolektiboa handia baita, kultura-aniztasuna lantzea izaten dela erronketako bat, sistemak ezarritako indarkeria-egoerak gertatzen direlako; izan ere, indarkeria arrazakerian, azal-kolorearen ondoriozko estigmatizazioan eta beste kultura batekoa izatearen ondoriozko diskriminazioan adierazten da.

“Heltzen garenean, hainbat harresirekin egiten dugu topo. Atzeritarrei buruzko legeak traba asko jartzen digu. Zainketa lanei dagokionez (orduak eta orduak lanean), emakumeak hona heltzen direnean, euren lan-arloa zaintzea izaten da, adinekoak (90, 95, 101 urtekoak) zaintzea batez ere; badaude bidezko egoerak, baina batzuek aprobetxatzen ditute emakume horiek”.⁵

⁴ Hezkuntza Ministerioako ordezkaria

⁵ Cony Carranza




Eztabaida:
hain
desberdinak
ez diren
errealitateen
arteko topaketa

Esperientzien trukaketa horren helburuetarako, hasteko, galdera batzuk egin zitzaizkien emakumeei: zer da bizitza duina emakume batentzat, **gorputza, familia** eta **komunitatea** bezalako dimentsioetan. Galdera horien bitartez ikusarazi nahi izan zen **emakumeen aldeko politiketan, programetan eta ekintzetan benetako beharrak, emakumeek sentitzen dituztenak, abiapuntutzat hartu behar direla**. Sortutako eztabaidak aintzat hartuta, esan daiteke helburua bete egin zela, **komunitate desberdinetatik etorritako emakumeek zapalkuntza-egoerak, baina baita erresistentzia, borroka eta lorpenak ere, deskribatu baitzituzten**.

Elkarriketa zuzenean oinarritutako metodologiak, **esperientziak trukatzeko aukera emateaz gain, harreman sozial eta politikoak eraldatzeko estrategiak eta proposamenak adierazteko ere balio izan zuen**. Ildo horretan, azpimarratu behar da **Guatemalako emakumeek planteatutako egoerak eta Euskal Herriko lagunek kontatutakoak ez zirela hain desberdinak izan**. Sentimendu hori ispiluan bezala ikusarazi zen, Atlantikoaren bestaldetik etorri ziren emakumeen hitzetan, topaketetan eta foroetan zabaldu ziren kontakizunetan, alegia.

*“Lehenengo inpresioa zera da: gauza horietako asko ezagunak ematen dira. Egia da egoera ekonomikoa desberdina dela, beste era batera bizi izaten garelako, baina zuek izaten dituzuen arazoak guk ere baditugu. Guk ez dugu argiaren premiarik, egun, bermatuta daukagulako, baina gure amonek antzeko egoerak bizi izan zituzten. Nire amonak ez zuen komunik, ezta ur korronterik ere; egoera hobetuz joan da emakumeek asko borrokatu dutelako”.*⁶

⁶ Hemendik aurrera azalduko diren esku-hartzeak trukaketa-jardueretan parte hartu duten lider guatemalarrek egin dituzte.



Guatemalako eta Euskal Herriko emakumeek badakite zapalkuntza eta erresistentzia-egoerak funtsean antzekoak direla, testuinguruak desberdinak izan arren; historiako denboraldi hau partekatzen dute eta antolatzeke aukera aztertzen dute, aurrera egin ahal izateko.

“Emakume izatearen inguruko ideiak ugari dira; ez gara gure amonak bezalakoak, ni ez naiz nire ama bezalakoa eta hori berri ona da. Gure premiak, geureak, zeintzuk diren jakin behar dugu.”

Bestalde, emakume guatemalarrek uste ez bezala, Euskal Herriko emakumeek ez dute euren gorputzari buruzko erabaki guztiak hartzen eta jarraitzen dute sexu- eta ugalketa-eskubideak, oro har, osasunerako eskubideak aldarrikatzen. Hortaz, esan daiteke emakumeen gorputza kontrolatzea arazo iraunkorra dela testuinguru desberdinetan, intimitatean, arlo pribatuan eta publikoan: erabakitzea eskubide bat da, sistemari aurre egiteko ekintza politiko bat. Tailerretan parte hartu duen emakume batek sistemaren logikari buruz hitz egitean, honako adierazpen hau egin du, ikaragarria bezain benetakoa:

“Gorputz batzuek ardura dute, beste batzuek, berriz, ez. Badaude garrantzirik gabeko gorputzak eta gorputz zuriak eta mendebaldekoak ez diren horiek izaten dira beti.”

Eztabaidan jartzen zen beste gai bat **erlijioa** izan zen, eta ildo horretan, **errua-
ren kontzeptua** jorratu zen, emakumeengan sortu ohi den sentimendu gisa eta haiek **kontrolatzeko eta zapaltzeko tresna giltzarri gisa**. Zentzu horretan, **parte-hartzaileek euren bizitzetatik errua kentzen ikasteko premia adierazi zuten**; izan ere, **EZETZ esaten ikastea** estrategia hausleenetako bat da.

“Lotsa sentitzen dugu errua guri botako digutela uste dugulako. Gorputza objektu bat balitz bezala erabiltzen dute. Lapurtu diguten gorputza berreskuratu behar dugu!”

Galderak eta iruzkinak egin ostean, gizartean harremanak egiteko moduen eta emakumezkoek eta gizonezkoek hartzen dituzten rolen aldaketei loturiko hainbat **erabaki eta ondorio** atera ziren.

“Ados gaude, gizonak badu eskubidea bere seme-alabak zaintzeko, emakumeari etxean laguntzeko. Gaixotasunean, gizonek zaintzea behar dugu. Batzuetan, atsekabe asko, sufrimendu asko jasan behar da. Askotan, etxean gertatzen da, eremu pribatuan, inork ikusi ez duenean; elkarrekin gaudenean, indartsu sentitzen gara.”


“Ama ezkongabearen rola ez da erraza, baina ez dugu aita hor egotea beharrik. Hobe da ama ezkongabea izatea, seme edo alaba bat haztea ez da ezinezkoa. Eskakizunak betetzeko aita bat izatea baino hobe bakarrik egotea.”

Gogoeta horietatik ateratzen den ondorioa hauxe da: emakume izatea ez da egoe-
ra estatiko bat. Emakumeak, gizakiak direnez, aldakorrak eta paregabeak dira.

“Emakume izateari buruzko ideia bat baino gehiago dago, eta denborarekin aldatzen ari dela ikusten dugu; gure ustez, berri ona da. Emakume izate hori alda dezakegu. Garrantzitsua da elkartzea eta gunea sortzea, eta talde gisa, gure ahotsa erabakiak hartzen diren guneetara eramatea. Bertan agertu nahi dugu, erabakiak hartu nahi ditugu.”

Emakumeentzako erabakiak hartzeko guneei dagokienez, batzuek senti-
menduak eta ikuspuntuak adierazi zituzten, toki horietara sartzeko aukera bizi-
tzeko moduaren inguruan. Hausnarketa horren baitan, feminismotik landu ziren
kontzeptuak agertu ziren: **ahizpatasuna**, emakumeen arteko itun politikoaren
zentzuan. Emakume askok gune horietara heltzean, ez dakite jokatzeko; zailtasun
horiek ere aipatu ziren.

“Emakumearen Batzordean egotea beste erronka bat da. Baina emakume bat COCODEko presidente gisa heltzen bada, komunitate osoaren interesak zaindu behar ditu, ez bakarrik emakumeenak. Garai hartan uraren kudeaketaz eta saneamenduaz hitz egin zen.”



“Askotan, boterea eta gatazken kudeaketa eztabaidatu behar izaten dugu. Egoera gatazkatsu bati aurre egiten diogu: moztu, eztabaidatu. Beste emakumeari hitz egiteko baimena eman behar diot, berak ere baititu gaitasun eta ezagutzak, nireak ez bezalakoak; oraingoan, kontua ez da gure artean lehian ibiltzea, ikasi dugun bezala.”

Ilido horretan, **boterea erabiltzeari buruzko tailerren premia aipatu zen**, gune horietara heltzen diren emakumeei tresnak emateko, gizonezkoengandik laguntzarik jasotzen ez dutenez.

“Gizonak emakume baten ondoan deseroso daudenez, emakumeari ateratzeko esaten diote. Desafioa botatzen diote. Emakumeak hemen egotera ausartzen badira, erakuts dezaten.”

Era berean, beste gai hau ere jorratu da: **emakume gutxiago heltzen dela erabaki-guneetara, eta iristen direnean, horretarako balio dutela erakutsi behar izaten dute; eta horrek, askotan, ondorio txarrak izaten ditu emakumearen gorputzean eta osasunean**. Egoera horri aurre egiteko, emakumeek euren bizi-baldintzak hobetzeko estrategiak ezarri dituzte, gehie-
nak komunitateko antolamendu sozialari loturikoak; estrategia batzuek, aldiz, **norbere burua zaintzearekin** dute zerikusia, zentzu zabalean.

“Emakume batek asko eskatzen dio bere buruari, ez du bere burua zaintzen, guztiz kontrakoa egiten du. Ahalduntzeaz hitz egiten dugunean, baliodunak gara eta eskubidea dugu komunitatearen bizitzan zein egoera ekonomikoan eragina izateko, gu ere planeta honetan bizi garelako eta herritarrak garelako. Batzuetan, jarduera utzi behar izaten dugu, atseden hartzeko.”

Komunitate mailan, **gizonezkoekiko harremanari dagokionez, eurekin lan egiteko beharra azaldu zen, emakumeen tokia familian, komunitatean eta, oro har, gizartean ulertarazteko**. Horretarako, jokabideak **txikitatiko aldatzeko beharra** adierazi zen, haurtzaroa baita funtsezko garaia pertsona bat eraikitzeko eta ikasteko.

“Guk gizonekin lan egin nahi dugu, horixe gertatzen zaigula argi izatea nahi dugu. Gizon batzuek eskubideak ditugula diote, baina gero, ez gaituzte aintzat hartzen, ez digute ezer egiten uzten. Asko aldatu behar dute.”



Ondorioak:
**bizitzea
merezi duen
bizitza bat**

Bazterketa, diskriminazio eta emakumeen kontrako indarkeriaren modu desberdinei aurre egiteko, **gizarte-sareak behar dira, “dantzaz egiteko, elkarrekin jateko, laguntzeko, ez gaudela bakarrik sentitzeko”**. Ahots ozenak, emakumeen aldekoak, behar dira, bai herriko zein udalerriko garapen kontseilueta (COMUDE eta COCODE horietan), baita estatuko erakunde guztietan ere.

Espero den emaitza zera da: politika publikoetan asmo onak azaltzeaz gain, horiek bultzatzeko eta lan hori egiteko behar diren langileak kontratatzeke **aurrekontua zehaztea**. Eta hori, ez bakarrik Guatemalan, **Euskal Autonomia Erkidegoan** ere bai, hemengo **“berdintasunaren ispilu faltsuak”** pentsarazten baitigu berdintasuna erakundeetara eta, oro har, gizartera iritsi dela eta lana egina dagoela; hala ere, egia esan, ez da horrela, botere-harremanen egitura zapalkuntzan eta berdintasunik ezan oinarritzen dela kontuan hartzen badugu.

Foro eta tailerretan parte hartu duten **emakumeek hainbat dimentsiotan ikusarazi zituzten ekintzak, eta horietan guztietan, beharrak eta interesak identifikatu zituzten**, faktore batzuen inguruan:

- **GORPUTZAREN DUINTASUNA.** Emakumeek bizi izan dituzten indarkeria-egoerak eta **erresistentzia-estrategiak** nabarmendu behar dira. Horietako bat **norberak bere burua zaintzea** da, ez bakarrik norberarekiko harremanean, baizik eta intimitatean, gizartean eta eskubideak ukatzea ekartzen duten egiturazko egoeretan ere. Hausnarketa sakona izaten da testuinguru sozial, ekonomiko eta politiko zailtan bizi diren emakumeen kasuan.

- **DUINTASUNA FAMILIA GIROAN.** Autonomia ekonomikoa edukitzeko, **iritziak eta erabakiak aintzat hartzeko premia nabarmendu behar da**. Horrela, berriz azpimarratzen da gizakiak prestatzeko eta sustatzeko gune horietatik ezabatu behar direla indarkeria eta diskriminazioa.

- **DUINTASUNA KOMUNITATEAN.** Emakumeek **parte hartzeko eskubidea** aldarrikatzen dute; nahasteak onartzen dituzte eta prest daude taldean lan egiteko. Berdintasun-asmoak ez dira mugatzen gizona eta emakumea izatera; **pertsona guztiek eskubide guztiak erabiltzeko aukera bermatu behar da**. Parte-hartzaileek tailerretan aipatu zuten neurrietako bat kalera ateratzea da, “burutik egindako histerikoak garelako entzun behar arren”.

Hori dela eta, **zapalkuntza-egoerak hainbat mailatan gertatzen direnez, garrantzitsua da dimentsio desberdinen arteko harremana agerian uztea**, maila horietan guztietan bultzatu behar baitira **autonomiak eraikitzeke** ekintzak. Horrela, **emakumeak ahalduntzea eta euren autonomia eraikitzea zehaztu**

beharreko politiketan eta ekintza-le-
roetan argi eta garbi adierazi behar
dira, baita dimentsio desberdinen
arteko antolamenduan ere, hau da,
intimitatearen (emakumearen **gor-
putza**), **familiaren** eta **komunita-
tearen** artean.

Programaren baitan planteatutako
**gizarte-eraldaketarako hezkun-
tza** jardueri dagokienez, **gene-
ro** mailan izan duten eragina oso
positiboa izan da, horrelako ekin-
tzei balio izaten baitute, alde bate-
tik, gizartea eskubideak erabat be-
tetzeari lortzeko borrokaren inguruan
kontzientziatzeko eta, bestalde, **emakumeak ahaldunduzko, be-
raiek izan daitezkeen beren bizi-
tzako aldaketaren eragile eta
gizarte-eraldaketan eragina izan
dezaten.**

**Euskal Autonomia Erkidegoko
ordezkarien laguntzarekin au-
rrera** egin da indarkeriarik gabeko
bizitzarako bidean eta emakumeen
eta gizonen arteko berdintasune-
rako eskubidearen aldeko borrokan.
Era berean, **sortu diren elkartzeko
eta iritziak trukatzeko guneetan,
Euskal Herriko eta Guatemalako**
elkarte eta erakundeetako ordezka-
rien ekarpenei esker, **alderdi biek
elkar aberastu dute eta erakutsi
dute bestetasunaren inguruko
kliseak deseraiki eta beste errea-
litate batzuk eta kultura-estereo-
tipoetatik urruntzen diren egoe-
rak desmitifikatu behar direla.**



Esan beharra dago **esperientzien trukaketak** tresna baliotsua izan direla, bai **informazioa partekatze**ko, baita **emakumeak ahaldunduzkoaren alde lan egi-
teko** eta **aktibismo feministaren sareen bitartez konfiantza- eta erresis-
tentzia-loturak sendotzeko**; izan ere, sare horiek sustatzen dituzte benetako
aurrerapenak, emakumeentzat –eta hortaz, gizarte-gune berak erabiltzen dituzten
pertsonentzat– estrategikoak direnak, eta **gizarte-aldaketa esanguratsuak eta
garrantzi handikoak** eragiten dituzte.

Egindako jardueren bidez, lortu da **Emakumeen Giza Eskubideak urratzea-
ren inguruan sentsibilizatzea**, genero-indarkeria ezagutaraztea, horren aur-
kako borrokan inplikatzeko eta **Nazioarteko Kooperazioak** Sololán eta Euskal
Herrian garatzen dituen ekintzen berri ematea. Era berean, **aztertu ahal izan dira
nazioarteko itunek eta Espainiako zein Guatemalako estatuek eskaint-
zen dituzten babes-mekanismoak**, azterketan teoria eta praktika bereizita;
ezinbesteko eztabaida horretan, ikuspuntu feminista eta ikuspegi kulturala har-
tu dira aintzat. Azken horri kontuan hartu denean, ikaskuntza kolektiboa sustatu
eta **etnozentrismo kulturalaren aurka egin da**, baina munduko toki askotan
giza eskubideen –batez ere, emakume eta neskei dagozkien eskubideen– hainbat
urraketa babesten dituen kultura-erlatibismoa defendatu gabe.

Halaber, Euskal Herriko eta Guatemalako emakumeak elkartzeko eta taldeen eta
**feministen artean iritziak trukatzeko gune horiek sortzea lagungarri izan
da beren jatorria testuinguruan kokatzeko eta sare feministak sendotze-
ko**, Emakumeen Giza Eskubideen defentsa eta Sololá departamenduko emaku-
meen kasuan bereziki latza den indarkeriaren kontrako borroka ahaztu gabe.

Laburbiltzeko, esango genuke honako helburu hauek bete direla:

- Euskal Herrian emakumeen eskubideen alde lan egiten dutenei Guate-
malako emakumeek izaten dituzten **arazoen berri ematea eta Guate-
malakoei euskal emakumeen arazoak ezagutaraztea.**
- Ahozko iturriak baliatuz, **tokian tokiko ezagutzak eta praktikak bil-
tzea**, banakako esperientziak Guatemalako (hain zuzen, Sololá departa-
menduko) **gizartean eta kulturen gertatzen diren egoeren analisiekin
uztartzeko.**

- Guatemalako eta Euskal Herriko emakumeen egoeren arteko lotura –eskubideei, berdintasunari eta genero-indarkeriari dagokienez– agerian utzi duten **bi-zi-esperientziak partekatzea**.

- Guatemalako eta Euskal Herriko emakume parte-hartzaileen artean **harreman egonkorrak eta estrategikoak ezartzea**, ahizpatasun printzipioa eta generoaren behar estrategikoak betetzeko.

- Sololáko emakumeek garatzen duten ahalduztze-lana eta genero-indarkeriaren aurkako borroka komunikabideetan **ikusaraztea**, beren eskubideen alde lantzen ari diren erresistentzia-estrategiak, behar estrategikoak eta emandako aurrerapausoak identifikatuz eta nabarmenduz, hori guztia, **gizarte-aldaketaren eragile bihurtzeko daitezkeen eta eragina izateko gaitasuna izan dezaten, ingurune sozio-ekonomiko eta kulturean biktimak gisa agertu beharrean**.

Bukatzeko, nabarmendu behar da Solidaridad internacional-Nazioarteko Elkartasunaren eta trukaketa-jardueretan parte hartu duten **tokiko kideen** (CPDL, AMLUDI eta SERCATE) **irizpena**: beren iritziz, **trukaketa-jarduerak garrantzitsuak izan dira sentsibilizazioa modu zuzenean eta pragmatikoan landu ahal izateko, esperientziaren eta harreman zuzenaren bitartez**.

Izan ere, **egoera lehen pertsonen bizi duten emakumeak topatzeko gune horiek lagungarriak izan dira herrien eta biztanleen, batez ere, emakumeen idiosinkrasiarekin koherenteak diren diskurtsoak eta lankidetzaren harremanak sortzeko, baita gizartea sentsibilizatzeko eta eraldaketa soziala bultzatzeko ere**. Era berean, ahozko iturriak baliatuz tokian **tokiko ezagutza eta praktikak biltzeko aukera parte hartu duten emakumeentzat lagungarria izan da banakako esperientziak** Guatemalako (hain zuzen, Sololá departamenduko) eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen eta kulturen gertatzen diren egoeren analisekin uztartzeko.



Erronkak:
**emakumeen
aurkako
indarkeriarik
gabeko
lurraldea**

Sistematizazio honi amaiera emateko, trukaketa-jardueretan adostu diren **erronkak** azalduko ditugu.

Lehenik eta behin, dokumentuan zehar azaldu bezala, **parte-hartzai-leak ados daude politika publikoek emakumeen autonomia** –intimitatean, maila pertsonalean, familian, erakundeetan eta komunitatean– eraikitzea bideratuta egon behar dutela. Eraikitze horrek hainbat mailatako esku-hartzeak eskatzen ditu gainera: esku-hartze psikologikoa, ekonomikoa, politikoa eta kulturala.

Errealitate bihurtzeko, hasteko, **emakumeek tokiko mailan** (etnia, klasea, generoa, ezintasuna dela medio) **bizi izaten dituzten zapalkuntza-egoerak** azaleratu behar dira, eta **baliabide sinbolikoak eta materialak bermatu**, emakumeak –banako zein talde gisa– ahalduntzeko prozesuak errazteko. Eta hori guztia, inertzian erori gabe; hau da, **baztertu behar dira ongizatea eta antipobrezia abiapuntu dituzten ekintza-leerroak edo laguntza helburu duten politika “familistak”**, emakumeak besteen ongizatea lortzeko baliabidetzat jotzen dituztelako, eta horrela, emakumeen pasibotasuna gizartean eta politikan sustatzen dutelako.

Bestaldetik, argi geratu da **kezkatik harago jo behar dela**, emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko lurralde bat lortu nahi izanez gero. Izan ere, **garrantzitsua da tartean sartutako eragileengan batasuna eta antolamendua**, baita **emakumeen kontuekin konpromiso handiagoa ere**, bultzatzea eta sortzea. Ildo horretan, erronka handia da herritarrek, be-

reziki emakumeek, politikan eta erabaki-guneetan parte hartzea. Guatemalaren kasuan, Sololá departamenduko 19 udalerrietako alkateen artean emakumerik ez egotea izan daiteke adibiderik argiena.

Genero-indarkeriari dagokionez, lehentasunezko kontua da **indarkeria mota berriei** erantzutea, patriarkatua gaurkotu eta teknologietara egokitzen delako. **Telefono eta gizarte-sareen bidezko jazarpenaren kasua da**, edo erlijio- eta politika-fundamentalismoetan sakontzeko zergen kasua, are sofistikatuagoa. Sololáren kasuan, trukaketan parte hartu zuten emakumeek, estatu mailako arretari dagokionez, **zerbitzuen hedapen geografikoa areagotzeko** eta iraupena luzatzeko premia adierazi zuten.

Azkenik, aurreko ataletan aipatu bezala, **ahizpatasuna** funtsezkoa da aurrera egiten jarraitzeko:

“EMAKUME BATEK BESTEARENGAN KONFIANTZA IZAN BEHAR DU, EZ BELDURRA, BAZTERTU BEHAR DUGU BESTEAREN ONDOAN SENTITZEN DUGUN LOTSA. ALDAMENEOA NIRE LAGUNA DELA SENTITU BEHAR DUT, BATASUNA SENTITU. ELKARRI LAGUNTZEKO GIZARTE-SAREAK BEHAR DITUGU, ELKARREKIN DANTZAN EGIN, JAN, LAGUNDU, ETA EZ GAUDELA BAKARRIK SENTITU BEHAR DUGU.”



Si!

Nazioarteko Elkartasuna
Solidaridad Internacional